

ACTA ASAMBLEA GENERAL

EXTRAORDINARIA 03/04/2025

Asistentes:

Presidente:

SERGIO ARANA

Clubes:

AITOR GARMENDIA (ATSS)

TXEMA CARRETO (MUNDAKO KAYAK SURF)

EÑAUT AIZPURURA (ITXAS-GAIN ZUMAIKO UROLA

ITSAS-ADARREKO P.T.)

VALER CARBALLO (PASAIA KAYAK 2005 K.K.)

ALFONSO JUEZ (GETXO KAYAKA)

JOSEBA SAIES (DONOSTIA KAYAK K.E.)

Fed. Territoriales

IKER LIBANO (Fed.Bizkaia)

Invitados/as:

JESUS SANTIAGO

Secretaria:

OLATZ ALKORTA

Vía teleconferencia se celebra, el día 03 de abril de 2025, a las 20:00h en segunda convocatoria, se reúnen los Sres./as al margen relacionados/as como miembros/as de la Asamblea General Extraordinaria de la Federación Vasca de Piragüismo.

El presidente explica que será una reunión muy rápida.

Se procede con el primer punto del orden del día.

Primer punto orden del día: Lectura y Aprobación del Acta de la Asamblea anterior. No se procede a la lectura del acta, porque todos/as los y las asistentes se dan por enterados/as del contenido de dicha acta y se aprueba por unanimidad.

Segundo punto del orden del día: Aprobación modificación Reglamento Electoral FVP: Se anexa documento relativo a este punto.

Toma la palabra el Presidente para explicar que desde el inicio se ha ido cumpliendo con lo solicitado por el Gobierno Vasco, en la reunión informativa sobre el Reglamento Electoral, indicaron que debía de existir un límite de mandatos, cosa que el Presidente indica que comparte, pues cree que es bueno ir cambiando. Pero que, una vez aprobado el reglamento electoral, solicitaron la modificación de los Estatutos. Realizado dicho cambio, reclamarón la eliminación de los mandatos de los Estatutos y una vez eliminados los mandatos de los Estatutos, solicitaron la eliminación de los mandatos en el Reglamento electoral, cosa que se podía haber realizado en la mimsa Asamblea del cambio de Estatutos y habernos ahorrado estos quince días de convocatoria.

Los artículos a eliminar son los siguientes:

Artículo 23. Elegibles

~~3.— El presidente o presidenta podrá ocupar este cargo durante el número máximo de 3 mandatos, sean o no consecutivos.~~

~~4.— Los miembros de la Junta Directiva podrán ser reelegidos/as en el mismo cargo, pero el límite temporal de mandatos será de 12 años o 3 mandatos.~~

El Presidente explica que estos apartados de límites de mandatos fueron consensuados en su día en Asamblea, pero que no se suprime con el fin de poder perpetuarse, sino que indica que el Gobierno Vasco está trabajand en un nuevo Decreto de Federaciones, pues el actual es del 2006 y contradice en varios apartados a la Nueva Ley de Actividad Física y Deporte y que ahí vendrá establecido el límite de mandato para todas las federaciones.

Se procede a la votación, siendo aprobadas las modificaciones por unanimidad.

Tercer punto del orden del día: Ruegos y preguntas:

No hubo ningun ruego ni pregunta.

El Presidente explica que se ha solicitado la próloga del proceso electoral, dado que viene determinado que tenía que finalizar para el 31 de marzo. Como la federación ha estado

trabajando, pero por diferentes requerimientos del Gobierno Vasco el proceso se ha dilatado, han concedido la prologa.

Indican que desde la Dirección de Actividad Física y Deporte han indicado que la resolución favorable será inminente, por lo que se convocará en cuanto se pueda el inicio del proceso electoral, previsiblemente la semana que viene.

El presidente agradece la asistencia a todos y todas las presentes, con la esperanza que sea la última reunión relativa a este tema y las siguientes Asambleas ya sean la de elecciones u ordinaria.

Y siendo las 20:10h del día al principio señalado se levanta la sesión.

VB.

Sergio Arana Alonso
EKF-tzako PRESIDENTE FVP

Olatz Alkorta Agirrebabiria
EKF-tzako idazkaria SECRETARIA FVP

EZ-OHIKO BATZAR OROKORREKO AKTAK 2025/04/03

Bertaratuak

Presidenteak:

SERGIO ARANA

Klubak:

AITOR GARMENDIA (ATSS)

TXEMA CARRETO (MUNDAKO KAYAK SURF)

EÑAUT AIZPURURA (ITXAS-GAIN

ZUMAIAKOUROLA ITSAS-ADARREKO P.T.)

VALER CARBALLO (PASAIA KAYAK 2005 K.K.)

ALFONSO JUEZ (GETXO KAYAKA)

JOSEBA SAIAS (DONOSTIA KAYAK K.E.)

Lurralde fed.:

IKER LIBANO (FED. BIZKAINA)

Gonbidatuak

JESUS SANTIAGO

Idazkaria

OLATZ ALKORTA

Bideo deis bidez, 2025eko apirilaren 03an, 20:00ean, bigarren deialdian, Euskal Kanoe Federazioaren Ez-ohiko Batzar Nagusiko kide diren alnoan agertzen diren jaun-andreak biltzen dira.

Presidenteak azaldu du oso bilera azkarra izango dela.

Gai-zerrendako lehen puntuari heldu zaio.

Gai zerrendaren lehenengo puntua: Aurreko Batzarreko Aktaren, hala badagokio, irakurketa eta onarpena. Ez da aktaren irakurketa burutzen, bertaraturiko guztiek, edukien jakinaren gainean daudela adieraziz. Aho batez onartzen delarik.

Gai zerrendaren bigarren putua: EKF-tzako Hauteskunde Araudiaren aldaketaren onarpena: puntu honi dagokion dokumentua eransten da.

Lehendakariak hartu du hitza, eta azaldu du hasieratik bete dela Eusko Jaurlaritzak Hauteskunde Araudiari buruzko informazio-bileran eskatutakoa, eta adierazi zuten agintaldien muga bat egon behar zela, eta lehendakariak adierazi du ados dagoela horrekin, uste baitu ona dela aldatzen joatea. Baina hauteskunde-araudia onartu ondoren, estatutuak aldatzeko eskatu zuten. Aldaketa hori egin ondoren, estatutuetako agintaldi-muga ezabatzea eskatu zuten, eta estatutuetako agintaldi-mugak ezabatu ondoren, hauteskunde-erregelamenduko agintaldi-muga ezabatzea eskatu zuten. Hori Estatutuen aldaketaren Batzar Nagusian egin zitekeen, eta deialdiko hamabost egun horiek aurreztu izana.

Hauek dira ezabatu beharreko artikulua:

23. artikulua. Hautagarriak

~~3. Lehendakariak gehienez 3 agintalditan bete ahal izango du kargu hori, ondoz ondokoak izan edo ez.~~

~~4. Zuzendaritza Batzordeko kideak berriro hautatu ahal izango dira, baina kargu berean agintaldien denbora-muga 12 urte edo 3 agintaldi izango da.~~

Presidenteak azaldu du agintaldien mugei buruzko atal horiek bere garaian Batzarrean adostu zirela, baina ez dela ezabatzen iraunarazi ahal izateko; aitzitik, adierazi du Eusko Jaurlaritza Federazioei buruzko Dekretu berri batean ari dela lanean, gaur egungoa 2006koa baita, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege Berriarekin kontraesanean dagoela zenbait ataletan, eta hor ezarriko dela federazio guztientzako agintaldi-muga.

Bozketa egin da, eta aldaketak aho batez onartu dira.

Gai zerrendako hirugarren puntua: Eskariak eta galderak:

Ez zen ez eskaerarik, ez galderarik izan.

Lehendakariak azaldu du hauteskunde-prozesuaren luzapena eskatu dela, martxoaren 31rako amaitu behar zela zehaztuta baitago. Federazioa lanean aritu denez, baina Eusko Jaurlaritzak hainbat eskaera egin dituenek, prozesua luzatu egin da, eta luzapen eskaera onartu dute.

Adierazi dute Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak adierazi duela aldeko ebazpena berehala emango dela, eta, beraz, hauteskunde-prozesua ahal bezain laster deituko dela, datorren astean, ziurrenik.

Lehendakariak bertaratutako guztiei eskerrak eman dizkie bertaratzeagatik, gai honi buruzko azken bilera izango delakoan, eta hurrengo batzarrak hauteskundeei buruzkoak, edo/eta ohiko bilerak izatea esperoan.

Eta hasieran adierazitako eguneko 20: 10hak izanik, Saioa amaitutzat eman zen.

Sergio Arana Alonso
VB. EKF-tzako PRESIDENTE FVP

Olatz Alkorta Agirregabiria
EKF-tzako idazkaria SECRETARIA FVP



Reglamento electoral

**PROYECTO DE REGLAMENTO ELECTORAL
FEDERACIÓN VASCA DE PIRAGÜISMO**



En vigor desde el 03 de abril del 2025



ÍNDICE

TÍTULO PRELIMINAR

- Artículo 1. Objeto**
- Artículo 2. Convocatoria**
- Artículo 3. Días hábiles**
- Artículo 4. Difusión del proceso electoral**

**TÍTULO PRIMERO
DE LOS ÓRGANOS ELECTORALES**

**Capítulo I
Junta Electoral**

- Artículo 5. Composición**
- Artículo 6. Elección**
- Artículo 7. Incompatibilidades**
- Artículo 8. Duración mandato**
- Artículo 9. Funciones**
- Artículo 10. Acuerdos de la Junta Electoral**
- Artículo 11. Sede de la Junta Electoral**
- Artículo 12. Actas de las sesiones**

**Capítulo II
Mesa Electoral**

- Artículo 13. Composición**
- Artículo 14. Elección**
- Artículo 15. Incompatibilidades**
- Artículo 16. Duración mandato**
- Artículo 17. Funciones**
- Artículo 18. Acuerdos de la Mesa Electoral**
- Artículo 19. Actas de las sesiones**

**TÍTULO SEGUNDO
DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO Y REPRESENTACIÓN Y SU ELECCIÓN**

**Capítulo I
Asamblea General**

- Artículo 20. Composición de la Asamblea General.**

**Capítulo II
Junta Directiva**

- Artículo 21. Composición de la Junta Directiva**
- Artículo 22. Incompatibilidades**



Artículo 23. Elegibles

Artículo 24. Plazo presentación candidaturas

Artículo 25. Presentación candidaturas

Artículo 26. Admisión de candidaturas

Artículo 27. Interventores e interventoras

Artículo 28. Ausencia de candidaturas

Artículo 29. Asamblea General

Artículo 30. Votación

Artículo 31. Escrutinio

Artículo 32. Resultados electorales

Artículo 33. Acta del escrutinio

TÍTULO TERCERO CALENDARIO ELECTORAL

Artículo 34. Hitos electorales

Artículo 35. Efectos de los recursos

TÍTULO CUARTO RÉGIMEN DE RECURSOS

Artículo 36. Acuerdos de la Junta Electoral

Artículo 37. Acuerdos de la Mesa Electoral

Artículo 38. Régimen supletorio



TÍTULO PRELIMINAR

Artículo 1. Objeto

1. El objeto del presente Reglamento es la regulación del proceso electoral de la Federación Vasca de Piragüismo.

Artículo 2. Convocatoria

1. Al objeto de proceder a la convocatoria de elecciones, la Presidenta o Presidente de la Federación Vasca de Piragüismo cesará y procederá a citar a la Junta electoral para que adopte los acuerdos necesarios para iniciar el proceso electoral.
2. El Presidente o Presidenta y su Junta Directiva continuarán en funciones hasta la elección de una nueva Junta Directiva.

Artículo 3. Días hábiles

1. El mes de agosto no se considerará hábil a efectos electorales.
2. Los días en que tengan lugar las votaciones no se celebrarán pruebas o competiciones deportivas de carácter oficial en el ámbito territorial de la federación donde se desarrolla el proceso electoral.

Artículo 4. Difusión del proceso electoral

1. Será deber de la Junta Electoral garantizar que todas las personas miembros de la Federación Vasca de Piragüismo queden suficientemente informadas sobre el proceso electoral y puedan ejercer los derechos que les corresponden.
2. El Presidente o Presidenta en funciones de la Federación Vasca de Piragüismo deberá garantizar y facilitar la labor de la Junta Electoral a la hora de dar difusión al proceso electoral.
3. Los acuerdos adoptados en el marco del proceso electoral estarán publicados en la página web de la Federación Vasca de Piragüismo.



4. Se remitirá a la Dirección competente en materia de Deportes correspondiente copia del censo electoral, calendario electoral y del Reglamento Electoral para su difusión complementaria.

TÍTULO PRIMERO DE LOS ÓRGANOS ELECTORALES

Capítulo I Junta Electoral

Artículo 5. Composición

1. La Junta Electoral de la Federación Vasca de Piragüismo se elegirá según este establecido en los estatutos, en caso de no estar previsto estará compuesta por tres titulares y tres suplentes, pudiendo ser un órgano unipersonal si lo permiten los estatutos.

Artículo 6. Elección

1. Las personas que formarán la Junta Electoral y sus suplentes serán elegidas por la Asamblea General.

Artículo 7. Incompatibilidades

1. Las personas que haya sido elegidas para formar la Junta Electoral no podrán integrarse en ninguna de las candidaturas del proceso electoral en curso.

Artículo 8. Duración mandato

1. El mandato de la Junta Electoral será de 4 años.
2. Antes de la finalización de período anterior la Asamblea General podrá destituir la Junta Electoral y nombrar otra Junta Electoral antes de la conclusión del período anterior.
3. La Junta Electoral saliente seguirá en funciones hasta el nombramiento de una nueva.



Artículo 9. Funciones

1. La Junta Electoral de cada federación es el órgano encargado de impulsar el proceso electoral y de velar por su correcto desarrollo, garantizando en última instancia federativa el ajuste a Derecho del correspondiente proceso electoral.
2. La Junta Electoral realizará las siguientes funciones:
 - a) Aprobar, en su caso el censo electoral y el calendario electoral.
 - b) Admitir, proclamar y publicar las candidaturas presentadas, o en su caso, los clubes y agrupaciones deportivas que cumplan los requisitos para pertenecer a la asamblea general.
 - c) Designar la Mesa Electoral.
 - d) Resolver las impugnaciones, reclamaciones y peticiones que se le presenten y los recursos contra las decisiones de la Mesa Electoral.
 - e) Interpretar los preceptos electorales y suplir las lagunas normativas que se puedan detectar.
 - f) Aprobar los modelos oficiales de las papeletas de voto, sobres, impresos para candidaturas y documentos análogos.
 - g) Autorizar la realización de los actos electorales en locales diferentes a la sede de la federación respectiva.
 - h) Resolver las consultas que se le formulen.
 - i) Informar al comité disciplinario correspondiente sobre aquellos hechos relacionados con el proceso electoral que pudieran ser constitutivos de infracción disciplinaria.
 - j) Proclamar las candidaturas electas.
 - k) Cualesquiera otras cuestiones que afecten directamente al desarrollo de las elecciones
3. Aplicar el voto ponderado que corresponde a cada club deportivo o agrupación deportiva conforme a los criterios reflejados en la siguiente tabla en base a sus licencias federativas.

Ponderación voto clubes



Nº licencias	Votos
>100	5
76-100	4
51-75	3
26-50	2
10- 25	1

Artículo 10. Acuerdos de la Junta Electoral

1. Los acuerdos adoptados por la Junta Electoral serán notificados a las personas interesadas y se publicarán, en todo caso, en la forma de difusión prevista en la normativa electoral vigente, tableros de anuncios federativos y web de la federación o de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

Artículo 11. Sede de la Junta Electoral

1. La Junta Electoral tendrá su sede en el domicilio social de la Federación Vasca de Piragüismo.

Artículo 12. Actas de las sesiones

1. De cada una de las sesiones de la Junta Electoral deberá levantarse un acta que firmarán todas las personas miembros asistentes

**Capítulo II
Mesa Electoral****Artículo 13. Composición**

1. La Mesa Electoral de la Federación Vasca de Piragüismo se elegirá conforme esté establecido en estatutos, en caso de no estar previsto, estará compuesta tres titulares y tres suplentes, pudiendo ser un órgano unipersonal.

Artículo 14. Elección

1. La persona que constituya la Mesa Electoral de la Federación Vasca de Piragüismo, y sus suplentes, serán elegidos por la Junta Electoral mediante sorteo entre aquellas personas electoras que no formen parte de ninguna candidatura.



Artículo 15. Incompatibilidades

1. La persona que haya sido elegida para formar la Mesa Electoral no podrá integrarse en ninguna de las candidaturas del proceso electoral en curso.

Artículo 16. Duración mandato

1. El mandato de la Mesa Electoral será de 4 años.
2. Antes de la finalización de período anterior la Junta Electoral podrá destituir la Mesa Electoral y nombrar otra Mesa Electoral antes de la conclusión del período anterior.
3. La Mesa Electoral saliente seguirá en funciones hasta el nombramiento de una nueva.

Artículo 17. Funciones

1. La Mesa Electoral de cada federación es el órgano encargado de velar por el correcto desarrollo de las fases de votación y escrutinio.
2. La Mesa Electoral realizará las siguientes funciones:
 - a) Velar por el correcto desarrollo de cada votación, comprobando la identidad de cada votante y su condición de elector o electora.
 - b) Resolver sobre la validez de los votos emitidos.
 - c) Efectuar el escrutinio de los votos.
 - d) Resolver cualquier otra incidencia relacionada con las votaciones y con el escrutinio.
3. La Mesa Electoral podrá ser asistida por la asesoría jurídica que le brinde, en su caso, la federación deportiva correspondiente.

Artículo 18. Acuerdos de la Mesa Electoral

1. Los acuerdos adoptados por la Mesa Electoral serán notificados a las personas interesadas y se publicarán, en todo caso, en el tablón de anuncios de la Federación Vasca de Piragüismo.



Artículo 19. Actas de las sesiones

1. De cada una de las sesiones de la Mesa Electoral deberá levantarse un acta que firmarán todas las personas miembros asistentes

**TÍTULO SEGUNDO
DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO Y REPRESENTACIÓN Y SU ELECCIÓN**

**Capítulo I
Asamblea General**

Artículo 20. Composición de la Asamblea General. Censo Electoral

1. La Asamblea General de la **Federación Vasca de Piragüismo** estará formada por todos los clubes deportivos vascos, agrupaciones deportivas vascas y sociedades anónimas deportivas vascas que, encontrándose inscritos en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, hayan solicitado expresamente su adscripción a la **Federación Vasca de Piragüismo** y que, a su vez, (i) hayan tenido **10** licencias federadas en la temporada de elecciones así como en la temporada inmediatamente anterior, (ii) hayan participado en **una** competición federada por temporada o que hayan organizado una competición federada del calendario autonómico por temporada.
2. En todo caso se computará como temporada de celebración de elecciones la temporada en la que se da inicio al proceso electoral.
- ...
3. La Junta Electoral proclamará de oficio los clubes/ agrupaciones deportivas/ sociedades anónimas deportivas vascas que cumplen con los requisitos previstos en el apartado primero.

**Capítulo II
Junta Directiva**

Artículo 21. Composición de la Junta Directiva

1. La Junta Directiva de la Federación Vasca de Piragüismo estará integrada, como mínimo, por cinco personas que deberán responder a la siguiente composición mínima:



- a) Un Juez o una Jueza
 - b) Un Deportista o una Deportista
 - c) Un Técnico o una Técnica
 - d) Un club o agrupación deportiva.
 - e) Una vocalía
4. La Junta Directiva de la Federación Vasca de Piragüismo deberá ser elegida mediante listas cerradas por la Asamblea General.
5. La Junta Directiva deberá componerse por un número impar de miembros teniendo en cuenta el número de presidentes o presidentas territoriales natos.
6. Las candidaturas a la Junta Directiva deberán identificar claramente los siguientes cargos:
- a) Presidencia
 - b) Vicepresidencia.
 - c) Secretaría
 - d) Tesorería

Artículo 22. Incompatibilidades

1. No se podrá ostentar simultáneamente el cargo de directivo o directiva de la Federación Vasca de Piragüismo y de una federación territorial, salvo en el supuesto de la persona que ostente la presidencia de una federación territorial, por ser miembros natos de la Junta Directiva de la federación vasca.

Artículo 23. Elegibles

5. Serán elegibles las personas físicas que sean deportistas, técnicos o técnicas, jueces o juezas, mayores de dieciocho años que sean federadas y/o que lo hayan sido en alguna de las dos últimas temporadas.
6. Igualmente serán elegibles los clubes, como personas jurídicas.



~~7. El presidente o presidenta podrá ocupar este cargo durante el número máximo de 3 mandatos, sean o no consecutivos.~~

~~8. Los miembros de la Junta Directiva podrán ser reelegidos/as en el mismo cargo, pero el límite temporal de mandatos será de 12 años o 3 mandatos.~~

Artículo 24. Plazo presentación candidaturas

1. El plazo para presentar candidaturas será de 7 días naturales a contar desde la proclamación definitiva de los integrantes de la Asamblea General.

Artículo 25. Presentación candidaturas

1. Deberá realizarse en impreso aprobado oficialmente por la Junta Electoral en el plazo anteriormente determinado.
2. La Junta Electoral deberá verificar el cumplimiento del límite de mandatos, entre otros requisitos.
3. Las candidaturas deberán estar firmadas por todos sus integrantes.
4. No podrán modificarse las candidaturas una vez que se hayan presentado.
5. Las candidaturas podrán identificar las personas suplentes para cubrir las eventuales bajas que se produzcan desde su presentación hasta la fecha de proclamación.
6. Las candidaturas deberán tener una representación equilibrada de mujeres y hombres de conformidad con las normativa vigente.

Artículo 26. Admisión de candidaturas

1. Concluido el plazo la Junta Electoral resolverá sobre la admisibilidad de las candidaturas presentadas en el plazo de 2 días hábiles.
2. Si alguna candidatura contiene errores que son subsanables se requerirá a la misma para su subsanación en el plazo de dos días hábiles.



3. Cuando exista una sola candidatura no será necesaria la celebración de votación y la Junta Electoral procederá a proclamar como la candidatura ganadora.

Artículo 27. Interventores e interventoras

1. Las candidatas y candidatos podrán otorgar poder a favor de cualquier persona, mayor de edad y en plenitud de sus facultades y derechos, para que ostente en calidad de interventora su representación en los actos electorales.
2. El apoderamiento deberá realizarse ante una notaría o ante la secretaría de la federación deportiva con arreglo a los requisitos establecidos en el reglamento electoral.
3. Su función se limitará a presenciar el acto de la votación y del escrutinio, con derecho a que se recojan en el acta correspondiente las manifestaciones que desee formular sobre el desarrollo del acto electoral, así como las reclamaciones referentes a la votación y escrutinio.
4. Los interventores e interventoras deberán acreditar su condición ante la Mesa Electoral exhibiendo el apoderamiento y el Documento Nacional de Identidad, pasaporte o documento identificativo análogo. La Mesa Electoral les permitirá permanecer en el local donde se desarrollen la votación y el escrutinio

Artículo 28. Falta de candidaturas

1. En el supuesto de no presentarse candidatura alguna la Junta Electoral volverá a abrir un nuevo plazo de presentación de candidaturas.
2. En el supuesto de que tampoco se presenten candidaturas en el segundo plazo, la Junta Electoral comunicará dicha situación a quien ejerza la Presidencia en funciones de la federación al objeto de que convoque una asamblea general extraordinaria para acordar la disolución de la federación.

Artículo 29. Asamblea General



1. Admitidas las candidaturas la Presidenta o Presidente en funciones convocará a la Asamblea General para su constitución formal y votación de las candidaturas, en caso de más de una válida.
2. La convocatoria se realizará aunque ya se encuentre prevista en el propio calendario electoral.

Artículo 30. Votación

1. Para la votación la Presidencia de la Mesa Electoral llamará nominalmente a cada miembro de la Asamblea para depositar la papeleta de la candidatura elegida en la urna habilitada al efecto, que votará por medio de su representante, en la forma siguiente:
2. El voto, que será secreto, se efectuará mediante la papeleta oficial proporcionada por la Junta Electoral. Para votar, se deberá acreditar la personalidad con la presentación del documento nacional de identidad, pasaporte, permiso de conducción u otro documento análogo que le identifique. Las personas jurídicas presentarán una certificación, expedida por el Secretario o Secretaria de la entidad, con el Visto Bueno de la Presidenta o Presidente, acreditativa de quien ostenta la representación legal de la entidad o de quien ha recibido el apoderamiento para las votaciones. Los clubes, cuando exista voto ponderado, recibirán de la Junta Electoral el número de papeletas correspondiente a su número de votos a emitir.
3. Cumplimentado dicho trámite, cada votante entregará la papeleta a la Mesa Electoral quien introducirá la misma en la urna correspondiente.
4. No se admitirá en el seno de la Asamblea General la delegación de voto ni el voto por correo. Ninguna persona física representante de un club deportivo podrá ostentar la representación de otro club deportivo.

Artículo 31. Escrutinio

1. Finalizado el acto de la votación se procederá al escrutinio de los votos por parte de la Mesa Electoral.



2. Serán nulos los votos emitidos en sobres o papeletas diferentes del modelo oficialmente aprobado por la Junta Electoral, así como los votos emitidos en papeletas sin sobre o en sobres que contengan más de una papeleta de distinta candidatura. En el supuesto de que los sobres contengan más de una papeleta de la misma candidatura se computará como un solo voto válido.
3. Serán también nulos los votos emitidos en papeletas en las que se hubiera modificado, añadido, señalado o tachado nombres comprendidos en ella o alterado su orden de colocación, así como aquellas en las que se hubiera producido cualquier otro tipo de alteración.
4. Se considerarán votos en blanco aquellos sobres que no contengan papeletas o con papeletas en blanco.

Artículo 32. Resultados electorales

1. Resultará ganadora la candidatura que hubiera obtenido la mayoría simple de los votos válidos.
2. Ostentará la Presidencia de la Federación Vasca de Piragüismo aquella persona que se identifique como candidato o candidata a la Presidencia en la candidatura que haya resultado elegida.
3. En caso de empate de votos se celebrará una nueva votación en el plazo máximo que determine la Junta Electoral. En la nueva votación únicamente participarán las primeras candidaturas con igualdad de votos.
4. Si persiste el empate, resultarán elegidas las candidaturas encabezadas por mujeres. Si persiste el empate, la Junta Electoral procederá, en el plazo máximo de siete días naturales, a un sorteo entre las candidaturas empatadas.

Artículo 33. Acta del escrutinio



1. Desarrollada la votación, la Mesa Electoral redactará el acta del escrutinio al objeto de que sea remitida con la mayor brevedad, junto con las papeletas de voto, a la Junta Electoral.
2. Las y los interventores de las candidaturas, así como de las Administraciones de tutela, tendrán derecho a obtener una certificación de dicho documento, si así lo solicitan.
3. La Junta Electoral, recibida el acta con los resultados del escrutinio y con las incidencias de la votación, proclamará provisionalmente a más tardar al día siguiente como ganadora a la candidatura más votada conforme a la relación de cargos recogida en ellas.
4. Una vez proclamadas provisionalmente las candidaturas ganadoras y resueltas, en su caso, las reclamaciones o recursos presentados, se realizará la proclamación definitiva. A partir de este momento, el cargo electo podrá ejercer sus funciones sin necesidad de acto formal de toma de posesión.

TÍTULO TERCERO CALENDARIO ELECTORAL

Artículo 34. Hitos electorales

1. A la hora de confeccionar el calendario electoral deberán atenderse a los siguientes hitos electorales:
 - a) Convocatoria de elecciones
 - b) Proclamación de los integrantes de la Asamblea General
 - c) Presentación de candidaturas
 - d) Admisión de candidaturas
 - e) Subsanación de candidaturas
 - f) Asamblea General para la votación
 - g) Proclamación de resultados tanto provisionales como definitivos.
 - h) Plazos de recurso ante los distintos órganos electorales.



Artículo 35. Efectos de los recursos

1. Los recursos no suspenderán el transcurso del calendario electoral.
2. De no ser viable la resolución de los recursos al tiempo suficiente para continuar con normalidad el procedimiento electoral, la Junta Electoral tendrá potestad para ajustar el calendario electoral a esta situación.

**TÍTULO CUARTO
RÉGIMEN DE RECURSOS**

Artículo 36. Acuerdos de la Junta Electoral

1. Los actos dictados en primera instancia por la Junta Electoral se recurrirán ante la propia Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles.
2. El plazo previsto en el apartado anterior se computará desde el siguiente a su notificación o, en su caso, publicación.
3. La Junta Electoral resolverá en el plazo de cuatro días hábiles los recursos que se le hayan interpuesto. La resolución estimará en todo o en parte, o desestimarán, las pretensiones formuladas en el recurso, o declarará su inadmisión.
4. Los actos dictados por la Junta Electoral resolviendo los recursos que ante ella se hayan presentado agotan la vía federativa y serán susceptibles de recurso ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de siete días hábiles.

Artículo 37. Acuerdos de la Mesa Electoral

1. Los acuerdos adoptados por la Mesa Electoral serán recurribles ante la Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles.
2. El plazo de dos días hábiles previstos en el apartado anterior se computará desde el día siguiente a su notificación o, en su caso, publicación del acto objeto de impugnación.

Artículo 38. Régimen supletorio

1. En todo lo no regulado en el presente Reglamento resultarán de aplicación lo dispuesto en la Ley 2/2023 de la Actividad Física y Deporte del País Vasco; el Decreto 16/2006 de Federaciones Deportivas del País Vasco y en la Orden de 22 de octubre de 2024 de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales y para la realización de elecciones de las federaciones deportivas vascas y territoriales, y en los Estatutos federativos, en todo lo que no sean contrarios a las normas de rango superior.

Presidente FVP
Sergio Arana Alonso

Secretaria FVP
Olatz Alkorta



Hauteskunde araudia

**EUSKADIKO KANOE FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE
ARAUDIAREN PROIEKTUA**



Indarrean, 2025ko apirilaren 3tik



AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Helburua
2. artikulua. Deialdia
3. artikulua. Egun baliodunak
4. artikulua. Hauteskunde prozesuaren hedapena

**LEHEN TITULUA
HAUTESKUNDE ORGANOAK**

**I. kapitulua
Hauteskunde Batzordea**

5. artikulua. Osaera
6. artikulua. Hautaketa
7. artikulua. Bateriaezintasunak
8. artikulua. Agintaldiaren iraupena
9. artikulua. Funtzioak
10. artikulua. Hauteskunde Batzordearen erabakiak
11. artikulua. Hauteskunde Batzordearen egoitza
12. artikulua. Saiotako aktak

**II. kapitulua
Hauteskunde Mahaia**

13. artikulua. Osaera
14. artikulua. Hautaketa
15. artikulua. Bateriaezintasunak
16. artikulua. Agintaldiaren iraupena
17. artikulua. Funtzioak
18. artikulua. Hauteskunde Mahaiaren erabakiak
19. artikulua. Saiotako aktak

**BIGARREN TITULUA
GOBERNU ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK ETA HORIEN HAUTAKETA**

**I. kapitulua
Batzar Nagusia**

20. artikulua. Batzar Nagusiaren osaera

**II. kapitulua
Zuzendaritza Batzordea**

21. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen osaera



- 22. artikulua. Bateriaezintasunak
- 23. artikulua. Hautagarriak
- 24. artikulua. Hautagaitzak aurkezteko epea
- 25. artikulua. Hautagaitzak aurkeztea
- 26. artikulua. Hautagaitzak onartzea
- 27. artikulua. Kontuhartzaileak
- 28. artikulua. Hautagaitzarik ez
- 29. artikulua. Batzar Nagusia
- 30. artikulua. Bozketa
- 31. artikulua. Zenbaketa
- 32. artikulua. Hauteskundeetako emaitzak
- 33. artikulua. Boto zenbaketaren akta

HIRUGARREN TITULUA HAUTESKUNDE EGUTEGIA

- 34. artikulua. Hauteskundeetako mugarriak
- 35. artikulua. Errekurtsoen ondorioak

LAUGARREN TITULUA ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

- 36. artikulua. Hauteskunde Batzordearen erabakiak
- 37. artikulua. Hauteskunde Mahaiaren erabakiak
- 38. artikulua. Araubide osagarria



ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Helburua

2. Erregelamendu honen helburua da Euskadiko Kanoe Federazioaren hauteskunde prozesua arautzea.

2. artikulua. Deialdia

3. Hauteskundeetara deitzeko, .Euskadiko Kanoe Federazioko lehendakariak kargua utziko du, eta Hauteskunde Batzorderako deia egingo du, hauteskunde prozesua hasteko beharrezkoak diren erabakiak har ditzan.
4. Lehendakariak eta Zuzendaritza Batzordeak jardunean jarraituko dute, harik eta Zuzendaritza Batzorde berria aukeratu arte.

3. artikulua. Egun balioudunak

3. Abuztua ez da baliodontzat hartuko hauteskunde ondorioetarako.
4. Bozketak egiten diren egunetan ez dira kirol proba edo lehiaketa ofizialak egingo hauteskunde prozesua gauzatzen den federazioaren lurraldean.

4. artikulua. Hauteskunde prozesuaren hedapena

5. Hauteskunde Batzordearen betebeharra izango da Euskadiko Kanoe Federazioko kide guztiek hauteskunde prozesuaren berri nahikoa izan badutela eta dagozkien eskubideak baliatu ahal dituztela bermatzea.
6. Euskadiko Kanoe Federazioko jarduneko lehendakariak Hauteskunde Batzordearen lana bermatu eta erraztu beharko du, hauteskunde prozesuaren berri emateko orduan.
7. Hauteskunde prozesuaren esparruan hartutako erabakiak Euskadiko Kanoe Federazioaren webgunean argitaratuko dira.



8. Hauteskunde erroldaren, hauteskunde egutegiaren eta Hauteskunde Araudiaren kopia bidaliko zaio kirol arloan eskumena duen Zuzendaritzari, zabalkunde osagarria izan dezan.

LEHEN TITULUA HAUTESKUNDE ORGANOAK

I. kapitula Hauteskunde Batzordea

5. artikulua. Osaera

2. Euskadiko Kanoe Federazioko Hauteskunde Batzordea estatutuetan ezarritakoaren arabera aukeratuko da, eta aurreikusita ez badago hiru titularrek eta hiru ordezkok osatuko dute. Pertsona bakarreko organoa izan daiteke, estatutuek baimentzen badute.

6. artikulua. Hautaketa

2. Hauteskunde Batzordea osatuko duten pertsonak eta horien ordezkoak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu.

7. artikulua. Bateriaezintasunak

2. Hauteskunde Batzordea osatzeko hautatuak izan diren pertsonak ezin izango dira sartu abian den hauteskunde prozesuko hautagaitzetan.

8. artikulua. Agintaldiaren iraupena

4. Hauteskunde Batzordearen agintaldia 4 urtekoa izango da.
5. Aurreko aldia amaitu aurretik, Batzar Nagusiak Hauteskunde Batzordea kargutik kendu eta beste Hauteskunde Batzorde bat izendatu ahal izango du.
6. Kargua uzten duen Hauteskunde Batzordeak jardunean jarraituko du berria izendatu arte.

9. artikulua. Funtzioak



Hauteskunde araudia

4. Federazio bakoitzeko Hauteskunde Batzordea izango da hauteskunde prozesua bultzatzeaz eta bere garapen egokia zaintzeaz arduratuko den organoa, eta azken buruan, dagokion hauteskunde prozesua Zuzenbidearekin bat datorrela bermatuko du.
5. Hauteskunde Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:
 - l) Hala badagokio, hauteskunde errolda eta hauteskunde egutegia onartzea.
 - m) Aurkeztutako hautagaitzak onartzea, izendatzea eta argitaratzea, edo hala badagokio, batzar nagusiko kide izateko baldintzak betetzen dituzten kirol klub eta elkarteak onartzea, izendatzea eta argitaratzea.
 - n) Hauteskunde Mahaia izendatzea.
 - o) Aurkezten zaizkion aurkaratze, erreklamazio eta eskaerak eta Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurkako errekursoak ebaztea.
 - p) Hauteskunde aginduak interpretatzea eta antzeman daitezkeen arau hutsuneak betetzea.
 - q) Boto txartelen, gutun azalen, hautagaitzetarako inprimakien eta antzeko agirien eredu ofizialak onartzea.
 - r) Hauteskunde ekitaldiak dagokion federazioaren egoitzaz besteko lokaletan egiteko baimena ematea.
 - s) Egiten zaizkion kontsultak ebaztea.
 - t) Dagokion diziplina batzordeari jakinaraztea hauteskunde prozesuarekin lotuta dauden eta diziplinazko arau hauste izan daitezkeen gertaerak.
 - u) Hautagaitza hautetsiak izendatzea.
 - v) Hauteskundearen garapenari zuzenean eragiten dion beste edozein gai.
6. Kirol klub edo kirol elkarte bakoitzari dagokion boto haztatua aplikatzea, lizentzia federatuen, hurrengo taulan jasotako irizpideen arabera:

Klubaren botoaren ponderazioa	
Lizentzia kopurua	Botoak
>100	5
76-100	4
51-75	3



Hauteskunde araudia

26-50	2
10- 25	1

10. artikulua. Hauteskunde Batzordearen erabakiak

2. Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta indarrean dagoen hauteskunde araudian, federazioko iragarki tauletan eta Euskal Kirol Federazioen Batasuneko webgunean aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

11. artikulua. Hauteskunde Batzordearen egoitza

2. Hauteskunde Batzordeak Euskadiko Kanoe Federazioaren egoitza sozialean izango du egoitza.

12. artikulua. Saiotako aktak

2. Hauteskunde Batzordearen bilkura bakoitzeko akta bat egin beharko da, eta bertaratutako kide guztiek sinatu beharko dute.

II. kapitula Hauteskunde Mahaia

13. artikulua. Osaera

2. Euskadiko Kanoe Federazioko Hauteskunde Mahaia estatutuetan ezarritakoaren arabera aukeratuko da, eta aurreikusita ez badago, hiru titularrek eta hiru ordezkok osatuko dute. Pertsona bakarreko organoa izan daiteke.

14. artikulua. Hautaketa

2. Euskadiko Kanoe Federazioko Hauteskunde Mahaia osatzen duen pertsona eta ordezekoak Hauteskunde Batzordeak aukeratuko ditu zozketa bidez, hautagaitzarik ez duten hautesleen artean.

15. artikulua. Bateriaezintasunak



2. Hauteskunde Mahaia osatzeko hautatu den pertsonak ezin izango du sartu abian den hauteskunde prozesuko hautagaitzetan.

16. artikulua. Agintaldiaren iraupena

4. Hauteskunde Mahaiaren agintaldia 4 urtekoa izango da.
5. Aurreko aldia amaitu aurretik, Hauteskunde Batzordeak Hauteskunde Mahaia kargutik kendu eta beste Hauteskunde Mahai bat izendatu ahal izango du.
6. Kargua uzten duen Hauteskunde Mahaiak jardunean jarraituko du berria izendatu arte.

17. artikulua. Funtzioak

4. Federazio bakoitzeko Hauteskunde Mahaia da bozketa eta zenbaketa faseak behar bezala garatzen direla zaintzeko ardura duen organoa.
5. Hauteskunde Mahaiak eginkizun hauek izango ditu:
 - e) Bozketa bakoitza behar bezala gauzatzen dela zaintzea, boto emaile bakoitzaren nortasuna eta hautesle izaera egiaztatuz.
 - f) Emandako botoen baliozkotasunari buruz erabakitzea.
 - g) Botoak zenbatzea.
 - h) Bozketekin eta zenbaketarekin lotutako beste edozein gorabehera konpontzea.
6. Hala badagokio, dagokion kirol federazioak aholkularitza juridikoa eman diezaioke Hauteskunde Mahaiari.

18. artikulua. Hauteskunde Mahaiaren erabakiak

2. Hauteskunde Mahaiak hartutako erabakiak interesdunei jakinaraziko zaizkie eta, edozein kasutan, Euskadiko Kanoe Federazioaren iragarki taulan argitaratuko dira.

19. artikulua. Saiotako aktak

2. Hauteskunde Mahaiaren bilkura bakoitzeko akta bat egin beharko da, eta bertaratutako kide guztiek sinatu beharko dute.



BIGARREN TITULUA
GOBERNU ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK ETA HORIEN HAUTAKETA

I. kapitulua
Batzar Nagusia

20. artikulua. Batzar Nagusiaren osaera. Hautesle Errolda

7. **Euskadiko Kanoe Federazioaren** Batzar Nagusia euskal kirol klub, euskal kirol elkarte eta euskal kirol elkarte anonimo guztiek osatuko dute, baldin eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta egonik, **Euskadiko Kanoe Federazioari** atxikitzea berariaz eskatu badute eta hauteskunde denboraldian eta aurreko denboraldian (i) **10** lizentzia (federatuak) izan badituzte, (ii) lehiaketa federatu batean parte hartu badute edo autonomia-erkidegoko egutegiko lehiaketa federatu bat antolatu badute hauteskunde denboraldian eta aurrekoan.
8. Kasu guztietan, hauteskundeak egiteko denboraldi gisa zenbatuko da hauteskunde prozesuari hasiera ematen zaion denboraldia.
- ...
9. Hauteskunde Batzordeak ofizioz izendatuko ditu lehen atalean aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten euskal kirol klub/kirol elkarte/sozietate anonimoak.

II. kapitulua
Zuzendaritza Batzordea

21. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen osaera

2. Euskadiko Kanoe Federazioko Zuzendaritza Batzordea, gutxienez, bost pertsonak osatuko dute, eta gutxienerako osaera honi erantzun beharko diote:
 - f) Epaila bat
 - g) Kirolari bat
 - h) Teknikari bat
 - i) Kirol klub edo elkarte bat
 - j) Batzordekidetza bat



Hauteskunde araudia

10. Euskadiko Kanoe Federazioko Zuzendaritza Batzordea Batzar Nagusiak aukeratu beharko du, zerrenda itxien bidez.
11. Zuzendaritza Batzordea kide kopuru bakoitiz osatu beharko da, lurraldeetan karguagatik lehendakari direnen kopurua kontuan hartuta.
12. Zuzendaritza Batzorderako hautagaiek argi eta garbi identifikatu beharko dituzte kargu hauek:
 - e) Lehendakaria
 - f) Lehendakariordea
 - g) Idazkaria
 - h) Diruzaina

22. artikulua. Bateriaezintasunak

2. Ezin izango da aldi berean Euskadiko Kanoe Federazioko eta lurralde federazio bateko zuzendari kargua izan, lurralde federazio bateko lehendakaria den pertsonen kasuan izan ezik, karguagatik euskal federazioko Zuzendaritza Batzordeko kide direlako.

23. artikulua. Hautagarriak

9. Hemezortzi urtetik gorakoak diren pertsona fisikoak aukeratu ahal izango dira: kirolariak, teknikariak, epaileak, federatuak eta/edo azken bi denboraldietako batean federatuak izan direnak.
10. Era berean, klubak ere hautagai izan daitezke, pertsona juridiko gisa.

~~11. Lehendakariak gehienez 3 agintalditan bete ahal izango du kargu hori, ondoz ondokoak izan edo ez.~~

~~12. Zuzendaritza Batzordeko kideak berriro hautatu ahal izango dira, baina kargu berean agintaldien denbora muga 12 urte edo 3 agintaldi izango da.~~

24. artikulua. Hautagaitzak aurkezteko epea



2. Hautagaitzak aurkezteko epea 7 egun naturalekoa izango da, Batzar Nagusiko kideak behin betiko izendatzen direnetik zenbatzen hasita.

25. artikulua. Hautagaitzak aurkeztea

7. Hauteskunde Batzordeak ofizialki onartutako inprimakian egin beharko da, lehen zehaztutako epean.
8. Hauteskunde Batzordeak agintaldien muga betetzen dela egiaztatu beharko du, besteak beste.
9. Hautagaitza horiek kide guztiek sinatuta egon beharko dute.
10. Hautagaitzak ezin izango dira aldatu aurkeztu ondoren.
11. Hautagaitzek ordezkioak identifikatu ahal izango dituzte, aurkezten direnetik izendatzen diren egunera arte gerta daitezkeen bajak betetzeko.
12. Hautagaitzek emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

26. artikulua. Hautagaitzak onartzea

4. Epea amaituta, Hauteskunde Batzordeak 2 egun balioduneko epean ebatziko du ea aurkeztutako hautagaitzak onargarriak diren.
5. Hautagaitzaren batek zuzen daitezkeen akatsak baditu, bi egun balioduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio.
6. Hautagaitza bakarra dagoenean ez da bozketa egin beharrik izango, eta Hauteskunde Batzordeak hautagaitza hori izendatuko du irabazle.

27. artikulua. Kontuhartzaileak



Hauteskunde araudia

5. Hautagaiek boterea eman ahal izango diote edozein pertsonari –adinez nagusi bada eta ahalmen eta eskubide osoa badauka–, hauteskunde ekitaldietan kontuhartzaile gisa ordezkaritza izan dezan.
6. Ahalordea notariotza baten edo kirol federazioko idazkaritzaren aurrean egin beharko da, hauteskunde araudian ezarritako baldintzen arabera.
7. Bozketaren eta zenbaketaren ekitaldia ikustera mugatuko da bere funtzioa, eta hauteskunde ekitaldiaren garapenari buruz egin nahi dituen adierazpenak eta bozketari eta zenbaketari buruzko erreklamazioak dagokion aktan jasotzeko eskubidea izango du.
8. Kontuhartzaileek Hauteskunde Mahaiaren aurrean egiaztatu beharko dute beren izaera, eta horretarako, ahalordea eta Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo antzeko identifikazio agiria erakutsi beharko dute. Bozketa eta zenbaketa egiten den lokalean egoten utziko die horiei Hauteskunde Mahaiak.

28. artikulua. Hautagaitzarik ez

3. Hautagairik aurkeztu ezean, Hauteskunde Batzordeak hautagaitzak aurkezteko beste epe bat irekiko du.
4. Bigarren epean ere hautagairik aurkezten ez bada, Hauteskunde Batzordeak egoera horren berri emango dio federazioaren jarduneko Lehendakaritzari, federazioa desegin edo ez erabakitzeko Ezohiko Batzar Nagusirako deia egin dezan.

29. artikulua. Batzar Nagusia

3. Hautagaitzak onartu ondoren, jarduneko lehendakariak Batzar Nagusirako deia egingo du, formalki eratzeko, eta bat baino gehiago baliozkoak badira, hautagaitzak bozkatzeko.
4. Deialdia egin egingo da, hauteskunde egutegian bertan aurreikusita egon arren.

30. artikulua. Bozketa



5. Bozketarako, Hauteskunde Mahaiko Lehendakaritzak Batzarreko kide bakoitzari deituko dio izenez, aukeratutako hautagaitzaren txartela horretarako gaitutako hautestontzian uzteko, eta ordezkari bidez bozkatuko du, honela:
6. Botoa sekretua izango da, eta Hauteskunde Batzordeak emandako txartel ofizialaren bidez egingo da. Botoa emateko, nortasuna egiaztatu beharko da, nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena edo identifikatzen duen antzeko beste dokumentu bat aurkeztuta. Pertsona juridikoek erakundeko idazkariak emandako ziurtagiri bat aurkeztuko dute, lehendakariaren oniritziarekin, erakundearen legezko ordezkaritza dutela edo bozketetarako ahalordea jaso dutela egiaztatzeko. Boto haztatua dagoenean, eman beharreko boto txartelen kopurua helaraziko die Hauteskunde Batzordeak kirol klubei.
7. Izapide hori beteta, boto emaile bakoitzak boto txartela emango dio Hauteskunde Mahaiari, eta hark dagokion hautestontzian sartuko du.
8. Batzar Nagusian ez da onartuko botoa eskuordetzea, ezta posta bidezko botoa ere. Kirol klub baten ordezkari den pertsona fisiko batek ezingo du beste kirol klub baten ordezkaritza izan.

31. artikulua. Zenbaketa

5. Bozketa ekitaldia amaituta, Hauteskunde Mahaiak botoak zenbatuko ditu.
6. Hauteskunde Batzordeak ofizialki onartutako ereduaz bestelako gutun azal edo boto txartelen bidez emandako botoak baliogabeak izango dira, bai eta gutun azalik gabeko boto txarteletan edo hainbat hautagaitzen boto txartel bat baino gehiago dituzten gutun azaletan emandakoak ere. Gutun azalek hautagaitza bereko txartel bat baino gehiago badute, boto balioudun bakar gisa zenbatuko da.
7. Baliogabeak izango dira, halaber, bertan jasotako izenak aldatuta, gehituta, seinalatuta edo ezabatuta dituzten boto txartelen bidez emandako botoak, edo beste edozein aldaketa izan dutenak.



8. Boto zuritzat joko dira boto txartelik ez duten edo txartel zuriak dituzten gutun azalak.

32. artikulua. Hauteskundeetako emaitzak

5. Boto baliodunen gehiengo soila lortu duen hautagaitzak irabaziko du.
6. Euskadiko Kanoe Federazioaren Lehendakaritzan egongo da aukeratu den hautagaitzan bere burua Lehendakaritzarako hautagai gisa identifikatzen duen pertsona.
7. Botoen berdinketa izanez gero, beste bozketa bat egingo da Hauteskunde Batzordeak zehazten duen epearen barruan. Bozketa horretan, boto kopuru bera duten lehen hautagaitzek bakarrik parte hartuko dute.
8. Berdinketak jarraitzen badu, emakumeak buru dituzten hautagaitzak aukeratuko dira. Eta berdinketak jarraitzen badu, Hauteskunde Batzordeak zozketa egingo du berdindutako hautagaien artean, gehienez ere zazpi egun naturaleko epean.

33. artikulua. Boto zenbaketaren akta

5. Bozketa egin ondoren, Hauteskunde Mahaiak zenbaketaren akta idatziko du, Hauteskunde Batzordeari ahalik eta azkarren bidaltzeko, boto txartelekin batera.
6. Hautagaitzetako eta tutoretzako administrazioetako kontuhartzaileek dokumentu horren ziurtagiria lortzeko eskubidea izango dute, hala eskatzen badute.
7. Zenbaketaren emaitzak eta bozketaren gorabeherak biltzen dituen akta jaso ondoren, Hauteskunde Batzordeak bertan jasotako karguen zerrendaren arabera boto gehien jasotzen dituen hautagaitza izendatuko du behin-behinean, beranduenez hurrengo egunean.
8. Hautagaitza irabazleak behin-behinean izendatu, eta aurkeztutako erreklamazioak edo errekursoak ebatzi ondoren, behin betiko izendapena egingo da. Une horretatik



Hauteskunde araudia

aurrera, kargu hautetsiak bere funtzioak bete ahal izango ditu, karguaz jabetzeko egintza formalik egin behar izan gabe.

HIRUGARREN TITULUA HAUTESKUNDE EGUTEGIA

34. artikulua. Hauteskundeetako mugarriak

2. Hauteskunde egutegia egiteko orduan, honako hauteskunde mugarri hauek hartu beharko dira kontuan:
 - i) Hauteskunderen deialdia
 - j) Batzar Nagusiko kideak izendatzea
 - k) Hautagaitzak aurkeztea
 - l) Hautagaitzak onartzea
 - m) Hautagaitzak zuzentzea
 - n) Bozketa egiteko Batzar Nagusia
 - o) Behin-behineko eta behin betiko emaitzak jakinaraztea
 - p) Hauteskunde organoetan errekurtsioa jartzeko epeak

35. artikulua. Errekurtsoen ondorioak

3. Errekurtsoek ez dute hauteskunde egutegia bertan behera utziko.
4. Hauteskunde prozedura normaltasunez jarraitzeko errekurtsioak ebatzea bideragarria ez bada, Hauteskunde Batzordeak hauteskunde egutegia egoera horretara egokitzeke ahalmena izango du.

LAUGARREN TITULUA ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

36. artikulua. Hauteskunde Batzordearen erabakiak



Hauteskunde araudia

5. Hauteskunde Batzordeak lehen auzialdian emandako egintzen aurka errekurtoa aurkeztuko da Hauteskunde Batzordean bertan, bi egun balioduneko epean.
6. Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.
7. Hauteskunde Batzordeak lau egun balioduneko epean ebatziko ditu jarri zaizkion errekurtoak. Ebazpenak osorik edo zati batean baietsi edo ezetsiko ditu errekurtoan aurkeztutako asmoak, edo ez dituela onartzen adieraziko du.
8. Hauteskunde Batzordeak bere aurrean aurkeztutako errekurtoak ebazteko emandako egintzek federazioaren bidea agortzen dute, eta horien aurka errekurtoa aurkeztu ahal izango da Kirol Justiziako Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean.

37. artikulua. Hauteskunde Mahaiaren erabakiak

3. Hauteskunde Mahaiak hartutako erabakien aurka errekurtoa aurkeztu ahal izango da Hauteskunde Batzordean, bi egun balioduneko epean.
4. Aurreko paragrafoan aurreikusitako bi egun balioduneko epea jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

38. artikulua. Araubide osagarria

2. Erregelamendu honetan arautzen ez den guztiari Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko 2/2023 Legean, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuan eta Jaurlaritzako lehendakariorde lehen eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko urriaren 22ko Aginduan xedatutakoa aplikatuko zaio. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurraldeetako kirol federazioetan hauteskunde erregelamenduak ezartzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dira. Federazioen estatutuetan xedatutakoa ere aplikatuko da, goragoko mailako arauen aurkakoak ez diren puntu guztietan.

EKF-tzako Presidentea
Sergio Arana Alonso

EKF-tzako idazkaria
Olatz Alkorta